



Testua eta irudiak: **Eider Eibar**

Saila: Album irudidunak

Gaia: Kokoan mundua ezagutzen hasteko liburua.

Nabarmentzekoak: sormenaren abentura, umorea, euskal mitologiaren erreferentziak, kolore bizien erabilera, irudi dinamikoak.

Adin egokia: 4 urtetik aurrera.

Kartoizko azala | 22 x 22 cm | 32 or. | Salneurria: 15,00 €

ISBN: 978-84-9172-392-9



*Gaur, Mae, lo eta Ur KOKOAK  
marrazteko elkartu dira.*

*—Nolakoak dira Kokoak? -galdetu du Maek.*

*—Ez dut oroitzen ... -erantzun du Urrek.*

*—Kokoan arkatza daukagu -dio lok.*

*—Dei ditzagun!*

KOKO MAKO / MAKI MOKO / KAKO MAKO / KOKO MIKO hitz-joko magikoa abestu eta Kokoak azaldu dira, izaki fantastiko txikiak, gure sorkuntza artistikoko lanetan laguntzen digutenak marrazkietan zuloak egin eta bertara sartuz.

Koko bat galdu egin da eta, Mae, lo eta Ur haur marrazkilariekin batera gu ere Kokoan mundu irudimentsu horretan sartuko gara urmargoak, koloretako arkatzak, argizariak, akrilikoak, gouachea eta teknika digitalak nahastuz eraikitako ilustrazio koloretsuen bidez.

Kolore kaieran barrena, margoen basoa, koloreen urmaela, ideia jaioberrien lorategia eta Kokoan herrixka ezagutuko ditugu eta baita bertako bizilagunak ere, Kokoan lagun diren izaki miresgarri, mitologiko ikusgarriak.

Marrazteko gogoia pizteko, Kokoak ezagutzeko eta lagun berriak aurkitzeko abentura koloretsua dugu hau.

## Eider Eibar (Bilbo, 1980)

Arte Ederretan lizentziatua Euskal Herriko Unibertsitatean eta Animazio masterra burutua Bartzelonako Pompeu Fabra Unibertsitatean. 25 urte daramatza Haur eta Gazte literaturako ilustratzaile profesional izanez eta 80 liburutik gora ilustratu ditu. Hau bere hirugarren lana da idazle eta ilustratzaile modura. Aurreko bi lan hauek Bratislavako Ilustrazio Biurtekoan (2017) eta IBBY/Silent Books Collection (2023) egitasmoan sailkatuak izan dira. 14 urtez irabazi du hurrek bozkatzeko duteen JUUL ilustrazio saria. 2018 urtean kokoak.eus ataria jarri zuen martxan, sorkuntza, ilustrazioa eta irudimenari buruzko proiektua.

[www.kokoak.eus](http://www.kokoak.eus)

